



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozio-ereduak funtziona dezan beharrezkoa da:

- **Teknikaria.** Bere ezagupenak eta horien aplikazioa funtsezkoa izango da proiekturako
- **Aliantzak** egitea baita ere ezinbestekoa da. Merkatuan sartzeko Samsung bezalako enpresa batekin hitzarmen bat lortu izana funtsezkoa da proiektuaren lehenengo pasuetarako.
- **Ezagutzak mantentzea** eta **praktikan jartzea.** Merkatua etengabe aldatuz doanez, berebiziko garrantzia dauka atzean ez geratzeak.
- **Garraiobidearekin harremana** izan une oro. Gaur egun edozein bezeroen nahia da erosketan egin bezain pronto produktua eskuetan izatea. Horrek banaketa kanal ezin hobia izatea behartzen gaitu.

Hiru partaideok argi daukagu aurreko funtzioak beharrezkoak direla guretzako. Lehenengo eta behin aurretik aipatu dugun bezala teknikari batekin harremana izango dugu gure proiektuan parte hartzeko. Bigarrenik, aliantzak izatea ezinbestekoa izango da guretzako, euskal talde ekologistarekin esaterako kontaktuan ibiliko gara. Ezagutzak mantentzea eta praktikan jartzea gure helburu nagusia da proiektua ondo ateratzeko. Azkenik, garraiobidearekin une oro kontaktua izatea oso garrantzitsua izango da guretzako, esan bezala.